

Altzako 202 etxebizitzak erabat birgaitzeko lanak urtea amaitu baino lehen bukatuko dira, eta espazio publikoko lanak 2026ra ere luzatuko dira

- **Auzoko 8 eraikin eta etxebizitza atxiki bat hartuko ditu barne proiektuak, eta guztira 15,1 milioi euroko inbertsioa egingo da. Horrez gain, espazio publikoak berrurbanizatuko dira, paisaia esku hartuko da eta energiari eta jasangarritasunari dagokienez hobekuntzak egingo dira, besteak beste**
- **Denis Itxaso Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak azpimarratu duenez, proiektua garrantzitsua da ez soilik inbertitutako zenbatekoagatik; "auzo zaharrenak espazio erabat bizigarriak eta eraiki berri den edozein etxebizitzatako bizi-kalitate berarekin egiteko konpromisoa berresten du"**
- **Eneko Goia alkateak adierazi du Udalak hirian egin duen "hiri-birgaitze programarik garrantzitsuena" dela inbertsio hau, eta energia-eraginkortasuna hobetzea eta erakundeen arteko lankidetzaren nabarmendu ditu, herritarren mesederako gako gisa**

Donostia-San Sebastián, 2025eko irailaren 29a. Denis Itxaso Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua, Eneko Goia Donostiako alkatea eta Ane Oyarbide alkateorde eta Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotzia Altza auzoan izan dira gaur goizean, 2024ko bigarren hiruhilekotik hiriaren gune horretan egiten ari diren berroneratze integraleko lanen nondik norakoak bertatik bertara ezagutzeko.

Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak ekonomikoki sustatutako operazio handienetako bat da; 15,1 milioi euroko inbertsioa du. Horietatik, 9,2 milioi Eusko Jaurlaritzak jarri ditu Inbertsio Estrategikoen Erakundearteko Planeko funtsen bidez, eta 3,2 milioi Donostiako Udalak. Horrez gain, herritarrek ere egin dute ekarpena; 2,6 milioi euro.

Bisitan zehar, Itxaso sailburuak proiektuaren garrantzia azpimarratu du, eta adierazi duenez, "etxebizitza-politikan etorkizunera begiratu behar dugu, iragana ahaztu gabe. Gure konpromisoa erabatekoa da. Ez dugu bistatik galdu nahi lehendik dagoen etxebizitza-parkearen gainean dugun erantzukizuna". Horrez gain, Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko arduradun nagusiak azaldu duenez, "askotan, eztabaida berritasunean oinarritzen da, baina ezin dugu ahaztu dagoeneko eraikita dagoen hori mantentzeko, birsortzeko eta modernizatzeko oinarritzko beharra, bertan bizi baitira herritar gehienak".

Hori dela eta, azpimarratu du, "Altzako inbertsio hau ez da soilik obra urbanistiko bat. Halako proiektuen bidez, erakundeen lankidetzaren bitartez, herritarrekin dugun konpromisoa adierazten dugu, espazio hauek bizigarriak, irisgarriak eta energetikoki eraginkorrak izaten jarraituko dutela ziurtatuta, hala Altzako auzotarren bizi-kalitatea eraiki berri den edozein auzotakoaren berdina izango dela bermatuta".

Bestalde, alkateak adierazi du egindako inbertsioa "Udalak azken urteotan hirian egin duen hiri-birgaitzearen programarik garrantzitsuena" dela, eta "funtsezko alderdi bat hobetu duela, hala nola Donostiako berrehun etxebizitzaren energia-eraginkortasuna eta irisgarritasuna".

Goiak, gainera, erakundeen arteko lankidetzaren nabarmendu du, "administrazioek elkar ulertzen dugunean, onuradunak herritarrek direla" erakusten baitu. Gainera, Altzako auzotarrei eskerrak eman dizkie "proiektuak aurrera egiteko izan duten inplikazio eta pazientziagatik, eta, aurrekontuek aukera ematen duten guztietan, hiriko beste eremu batzuetan antzeko esku-hartzeak egiteko konfiantza"



adierazi du. Birgaitze-prozesuan parte hartu duten etxebizitzaren energia-eraginkortasuna asko hobetu da; batez besteko eraginkortasuna % 60 baino gehiago hobetu da. Familien aurrezpen ekonomikoari dagokionez, % 60 ingurukoa da, eta erosotasuna eta bizigarritasuna hobetuko dira. Batez ere, bizi-baldintzak nabarmen hobetuko dira irisgarritasuneko hobekuntzak direla eta, batez ere adinekoentzat. Proiektu honetan, eraikin guztiek hobetu dute irisgarritasuna.

Auzoa eraldatzeko sei jarduketa

Altzaren berroneratzea sei jarduketa handiren inguruan egituratu da, eta etxebizitzetan esku-hartzeak, hurbileko zerbitzuak, espazio publikoak eta jasangarritasuna uztartzen dituzte. Eusko Jaurlaritzaz gain, hainbat udal-sailek ere aktiboki parte hartu dute, hala nola Donostiako Sustapenak, Donostiako Etxegintzak, Lanak eta Proiektuak eta Ingurumena sailak.

Lehenengo lan-ildoak bizitegi-eraikinak sakon birgaitzea izan du oinarri; guztira, 202 etxebizitza birgaitu dira, zortzi jabe-erkidegotan eta etxebizitza atxiki batean, auzoko eremu zaurgarrienetan. Obra horiek urtea amaitu baino lehen amaitzea aurreikusi da, eta eraikinak erabat eraldatuko dira: irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna, bizigarritasuna eta suteen aurkako babesak hobetu egingo dira. Energia-eraginkortasunari dagokionez, esku-hartze integralaren bidez, ingurutzalearen elementu guztiei eragingo die, eta eraikinen fatxadak, estalkia eta zolatak isolatuko dira. Fatxadak aireztatuak dira, eta metalezko azpiegitura bat dute, akabera-piezak ainguratzeko, aire-ganbera bat eta isolamendu termikoa. Horri esker, nabarmen hobetuko dira etxebizitzaren barne-baldintzak, temperaturari eta hezetasunari dagokienez.

Gainera, eraikinen egonkortasuna sendotzeko eta irisgarritasuna bermatzeko esku-hartzeak egin dira, egungo araudiari jarraiki. Hori funtsezkoa da 1981. urtea baino lehen etxebizitzaren % 85 baino gehiago eraiki ziren auzoan. Jarduketa horiek errazteko, 5,9 milioi euro bideratu dira laguntza orokorretara, eta beste 531.000 euro, irizpide sozialen arabera banatuta. Horri esker, behar handienak dituzten 52 familiaren eskaerei erantzun ahal izan zaie.

Aurreikusitako jarduketa batzuk oso aurreratuta daude dagoeneko. Txapiñene 1 eta Elizasu 6 zenbakietan obrak % 95ean daude egikarrituta, hau da, ia bukatuta daude. Aipatzekoak dira, halaber, Elizasu kaleko 19, Altza pasealekuko 10 eta Erroteta kaleko 6 zenbakian egingo diren jarduketak; obraren % 85 egikarrituta dago. Azken bietan, igogailu berri bat jarriko da fatxadako lerroakuratzeko kanpo. Tarteko egoeran daude Erroteta Goikoa 2 zenbakiko lanak. Dagoeneko % 80 egikaritu da, eta kanpoko igogailu berri bat dauka. Eta, azkenik, Arriberri 2 taldea —kanpoko igogailu berri bat eraikitzen ari dira— eta Elizasu 8 —obraren % 75 aurreratu da— ditugu. Hala eta guztiz ere, eta kontuan izanik obra guztiak ez zirela aldi berean hasi —jabeen erkidego bakoitzak bere aldetik kontratatzen baitu berea—obra horiek egiteko ezarritako gehieneko epea 2025eko abenduaren 31 da.

Aldi berean, Hurbileko Bulego Teknikoa eta Kudeaketa Bulegoa (Opengela) jarri dute martxan Eusko Jaurlaritzak eta Udalak, Erroteta Goiko Kalea 21ean. Gune horrek, Opengela programaren ereduari jarraiki, aukera ematen du herritarrek hurbileko laguntza profesionala birgaitze-prozesu osoan izateko, eta erreferentzia-puntua da izapideak egiteko, informazioa emateko eta zalantzak argitzea.

Hirugarren jarduketaren helburua da hiri-ingurunea berrurbanizatzea eta hobetzea, degradatutako espazioak berreskuratzeko eta oinarritzko ekipamenduetarako irisgarritasuna errazteko. Ubideak birnaturalizatzeko eta berreskuratzeko lanak egin dira Auditx Akularren, eta aurreikusita dago Larreseko ibarrean amiantoak kutsatutako lurzorua berreskuratzeko, eta hala ingurumen-hobekuntza handia egingo da. Era berean, aurrera doaz Ederrena plaza eta Herrerako frontoira sarbideak birnaturalizatzeko lanak, auzokoek erabiltzeko espazio atsegin eta berdeagoak sortzeko asmoz. Irisgarritasunaren arloan, hobekuntzak egingo dira Altzako anbulatorka zein Harri Berri ikastolara doazen ibilbideetan, hala auzoko ehunka familiaren egunerokoa hobetzeko.



Proiektuak jasangarritasun energetikoaren aldeko apustu irmoa ere egin du, tokiko komunitate energetikoak eratuta. Esparru horretan, instalazio fotovoltaiako bat jarri da Altzako ikastetxe publikoaren estalkian. Dagoeneko auzoko 13 eraikin eta instalazio publiko hornitzen ditu, eta urtean 98.075 kWh inguru sortzen ditu. Gainera, Altzako kiroldegian beste eguzki-instalazio bat jartzen hasi dira. Urtean 377.505 kWh ekoitziko ditu, autokontsumo partekatuko ereduaren arabera, eta horrek mesede egingo dio ekipamenduari berari eta udalaren beste hornidurei.

Bosgarren esku-hartze ildoak etxebizitzaren digitalizazioari dagokio. Erosotasun- eta kontsumo-datuen sentore- eta monitorizazio-sistemaren bidez, barruko airearen kalitateari buruzko erregistroak jasotzen ari dira denbora errealean, parametro hauek barne hartuta: hezetasuna, tenperatura, CO₂ mailak eta energia-kontsumoa. Hala, familiei tresna bat eskaintzen zaie esku-hartzeen aurreko eta ondorengo datuak alderatzeko, eta, energiaren erabileraren eraginkortasuna hobetzeaz gain, zuzenean eragingo du osasunean eta etxeko erosotasunean. Gainera, etxebizitzak kontsumitzen duen energia erabiltzeko informazio gehiago izango dute erabiltzaileek.

Azkenik, auzoko paisaia eta natur ondarea ere landuko dira, Lau Haizeta parkeko jarduketaren bidez. Karteletako elementuak berriak dira, eta ingurumen-ibilbide berriak diseinatu dira, ingurunea interpretatzen laguntzen duten QR kodeen bidez. Halaber, maiztasun-azterketa egin da, Altzako bizilagunak asko ibiltzen diren naturagune horretan etorkizunean hobekuntzak egiteko.

Gizartean eta komunitatean eragina duen proiektua

Altzak 20.000 biztanle inguru ditu (hiriko biztanleen % 10,7), eta 8.900 etxebizitza baino gehiago 1.181 ataritan banatuta; Donostiako hirugarren auzorik populatuena eta dentsitate handiena duena da. Bizitegi-parkearen % 85 baino gehiago 1981a baino lehen eraiki zen, eta, beraz, ezinbestekoa da birgaitzeko eta modernizatzeko inbertitzea.

Altzaren berroneratze integrala proiektu aitzindaria da Euskadin, eragin ekonomikoagatik, baita eragin sozialagatik ere. Etxebizitzak birgaitzea, hurbileko zerbitzuak, energia garbiak, digitalizazioa eta hiri-paisaia hobetzea dira Donostiako eta Euskadiko beste auzo batzuetan etorkizunean egin beharreko lanen eredu.